

...eta kitto!

716 zkia. 2010-IV-9

ASTEKARIA

TOKIKOM

Bertso Eskolen Eguna EIBARREN

EUKi

ARTEKARITZA


Torbio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**




**AUTO
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30**

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR




...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelertik
euskara,
eta ingelesetik
euskara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALA:

Gipuzkoako Bertsozale Elkartea

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

GAIZKI ESAN.- Norbaiti buruz gauza txarrak esan. Birraok esanez hitzegin. "Hori bizi guztian ibilliko dok gaizki esaka".

GAIZKIÑAK EUKI.- Haserre, umore txarreko egon. "Gaizkiñak jaukaz gaur gure mutil zaharrak eta ezin lajeikek hurreratu beragana".

GAIZTO USAIÑAK.- Gaiztakeriak, okerkeriak. "Eskolan eta eskolatik kanpora, gaizto usaiñetan dabil beti".

ESKUTITZAK

BERTSO AFARIRAKO TXARTELAK SALGAI ASTELEHENETIK AURRERA

...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen "Ilunabarrian" programaren barruan, datorren maiatzaren 7an, barixakuan, azken urteotan ohikoa bihurtu den bertso-afaria egingo dugu Bide Alde sozietate gastronomikoarekin elkarlanean (Txaltxa Zelai 8- 10 behe). Elkartean bertan egingo den afarian, Eibar eta Etxebarriko taldeetako bertsolariak jardungo dute lehiaren: gure herriko ordezkari Jon Mikel Mujika, Julen Sololuze eta Mikel Arri-llagak osatuko dute; eta Bizkaiko herriarena Lander Ibarluzea edo Atxulua, Joseba Artza eta Eneko Arratek. Aur-

ten, beraz, betiko afari arrakastatsuari jokoan izango den lehia berezia gehituko zaio.

Sarrerak ...eta kitto!-n egongo dira salgai (Urkizu, 11 solairuartera) astelehenetik aurrera, hau da, hilaren 12an hasita: bazkideentzat 15 eurotan eta gainontzekoentzat 18 euro ordainduz. Afaria gaueko 21.30etan hasiko da. Interesatuok badakizue, beraz, lehenbailehen ahalegindu beharko duzuela sarrerak eskuratzen, elkartean kopuru mugatuarentzako tokia izango baita bakarrik.

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

asteka HEMEROTEKA esaldiak

"Nire begien gaineko tituluen eta gertuko argazkien atzean zer dagoen ikusita nahikoa haserretzen naiz. 80 urte banitu edo mutila banintz, ez lizateke pasako. Horrelako etiketak 'nexkei' jartzen zaizkie, paternalismotik. Iturriagaren patillak aspaldi ez ditut ikusi tituluetan, serio hartzen dutelako. Emakumeoi ez zaigu hazteko eskubidea ematen, ez zaigu abizenez deitzen"

(Uxue Alberdi, idazlea eta bertsolaria)

"Euskadi Irratiko kolaboratzaileen kopurua erdira murriztera doazela iragarri zaigu; Radio Euskadiko kolaboratzaileei, aldiz, eusten saiatuko direla dio Joseba Arruti irrati zuzendariak. Euskal kolaboratzaileak kentzen dituzten bitartean, ETB2ko zenbat saiko kolaboratzaileei hegazkina jartzen die estatuko edozein tokitatik etor daitezten"

(Xabier Lasa, komunikazio analista)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

30 urteko eibartarra hil da Marokon

MARTA GUENAGA GÓMEZ 30 URTEKO EIBARTARRA MAROKON, ESSAUIRA HIRIAN HIL ZEN DOMEKA GOIZALDEAN, automobil batek harrapatuta. Eibartarrarekin batera Iñaki Beunza Gil 36 urteko iruindarra zendu zen, automobilak eragindako zauri larrien ondorioz. Gazte biak bidea zeharkatzean gertatu zen ezbeharra; automobilaren kontrola galdu zuen gidariak aurretik eraman zituen gazte biak eta, jarraian, ihesari ekin zion. Antza denez, Beunzaren urtebetetzea ospatzen egon ziren gazteak, euren gidak lagunduta, eta afaltzetik atera berri zirenean gertatu zen ezbeharra. Marokoko polizia istripua gertatu eta ordu batzutura aurkitu zuen gidaria. Aditza eman dutenez, nazionalitate frantsesa duen gizonezkoa da. Marta Guenagak Nafarroako Unibertsitate Pubikoan Nekazal Injeniaritza ikasi zuen eta kalitatearen inguruko masterra egin zuen Madrilén. Bilboko enpresa batentzat ziharduen beharrean.



Essaouira herri turistikoan gertatu zen istripua.

Hileta-elizkizuna zapatuan

Marokoko agintariek Guenagaren senideei adierazitakoaren arabera, gazte bien hilotzak eguenean (apirilak 8) ailegatuko dira Barajaseko aireportura, Casablancatik datorren hegaldian. Gazte eibartarraren kasuan, gorpua Elgoibarko tanatoriora eramango dute eta zapatu goizean familiarrean emango diote azken agurra eta zapatuan bertan, 19.00etan San Andres elizan izango da hileta-elizkizuna.


autuan

11.000 POLTSA BERRERABILGARRI

Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak herriko etxeetan 11.000 poltsa berrerabilgarri banatzeko proiektua zehazten dihardute. Proiektua maiztean da hastekoa eta hainbat ekintza hartuko ditu bere baitan. Helburuei dagokienez, bestetik, herritarren ingurumenarekiko kontzientziazioa lortu nahi da plastikozko poltsen erabilera murrizteko eta Eibarko establezimenduen dinamizazio komertzialari lagundu.

ATZERAPENAK AZITAIN-SAUTSI BIDEAN

Azitaín eta Sautsi arteko bidea egiteko lanek beste atzerapen bat gehiago izan dute. Obrak martxoan amaitu behar ziren, baina lanean dihardute bertan oraindik. Obren amaiera datarik ematen ez bada ere, asfaltatze lanak atzo hasiko zirela adierazi zuten Udaletik joan den astean.



Arno trikitilariak agur esan zigun domekan

JUANITO BARRUTIA "ARNO" TRIKITILARIA DOMEKAN HIL ZEN, 75 URTEREKIN.

Larruskaineko plazan trikitia jotzen hasi zela 60 urtetik gora igaro dira eta denbora horretan Euskal Herri osoan jardun izan du, batez ere Gipuzkoan: Osintxu, Bergara, Deba, Mutriku... Ermua, Zaldibar eta inguruak ere askotan alaitu ditu eta, zer esanik ez, Eibarko hainbat jai eta ospakizunetan izan dugu bera ikusteko parada, Arrateetatik hasita. Jaietako berbena eta erromerietatik kanpo, azken urteotan sarritan jo zuen ezkontzetan; hasieran Felix Mendozarekin, gero Ziolarrekin eta, azkenik, Joseba semearekin. Azken honek lekukoa hartu dio eta gaur egun berak darama Arno-ren izpiritua inguruko ospakizunetan.



Zugastiren eskultura egongo da Alfa-Sanandresen

ALFA-SAN ANDRES INGURUA APAINTZEKO JOSE ZUGASTI ARTISTA EIBARTARRAREN ESKULTURA ipiniko dute aurten: "Formen Dantza". Zugastiren estiloari jarraituta, elkargurutzatutako burdinez osatutako eskultura izango dela aurreratu du Udalak eta Alfa-Arten egingo dute. 3'5

bat metroko diametroa izango duen eskulturarako 60.000 bat euroko aurrekontua erabiltzea aurreikusi dute. Zugastiren lanek hainbat hiritako kaleak apaintzen dituzte (besteak beste, Bilbon "A la deriva" eskultura dago ikusgai), baina hau da artistak bere sorterrian izango duen lehena.

MARTA GUENAGA GÓMEZ (Essaouiran hil zen apirilaren 4an)


*"Mila esker oparitu dizkiguzun irribarre guztiengatik.
Beti gure bihotzean eramango zaitugu"*

ZURE LAGUNAK



Parkinson gaitzari aurre eginez

DOMEKAN, APIRILAREN 11-N, PARKINSON GAITZA MUNDU MAILAN GOGORATUKO DA eta, horren aitzakiarekin, Deparkel Debabarrena Parkinson Elkarteak gaixoei zein haien senideei eskaintzen dizkien zerbitzuak gogoratu nahi izan ditu, interesa duen edozei-



nek nora jo dezakeen ezagutzera emateko asmoz. Deparkelek Ardantza kaleko etxe berrietan, 1 zenbakian dauka egoitza, Udalak lagatako lokalean (Afagi Alzheimer gaixoen elkartekoekin partekatzen du). Elkarteko boluntarioek astelehenetik barixakura, 09.00etatik 13.00etara orientazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute eta, horrez gain, gaixoei laguntzeko terapiak ere egiten dira astelehen, eguazten eta barixakuetan, 16.00etatik 19.00etara (psikologia, fisioterapia, neurosikologia eta logopediarekin lotutako programak eskaintzen dituzte, besteak beste). 25 bat lagunek jarraitzen dituzte aipatutako terapiak eta, gaixotasuna sendaezina izan arren, "hobekuntza nabarmena" somatu dutela azaldu digute elkarteko ordezkariak. Interesatuak 943202653 edo 630210686 telefono zenbakietan jaso dezakete informazio zehatzagoa.

Fermin Balentzia kantautorea.




II. Errepublika gogoan asteburuan

EGUAZTENEAN, APIRILAREN 14-AN, II. ERREPUBLIKA ALDARRIKATU ZELA 79 URTE BETEKO DIRA eta, hori gogoratzeko, Ahaztuak 1936-1977 elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu astebururako. Zapatu arratsaldean, 19.00etan, Fermin Balentzia kantautore nafarrak kontzertua emango du Portalean. Balentziak Errepublikaren baloreak goraiatzeko abestiekin osatutako errepertorioa eskainiko du bere kantaldian.

Eta domekan, ekitaldi publikoaren txanda ailegatuko da 13.00etan Untzagan. Elkarteko ordezkariak adierazitakoaren arabera, "1931ko apirilaren 14an Errepublikaren bandera igo zutenen omenezko ekitaldi publikoa izango da eta, aurreko urteetan egindakoari jarraituta, bertsolariek, dantzariak eta faxistei aurre egin dieten adin guztietako borrokalariek hartuko dute parte". Besteak beste, Untzagan berriz ere bandera gorri-more-horia igoko dute.

anzorik anzo



Biribilgunea Eroski alboan

Romualdo Galdosetik Santainesera doan bidea moztu egin zuten atzo Eroski alboan egingo den biribilgunearen lanak hasteko. Obren amaiera irailaren 1erako aurreikusten da eta, horren ondorioz, bakarrik Romualdo Galdos kaletik Armeria Eskolara doan bidetik jaitsi egin ahal izango da eta ez igo orain arte egin zitekeen bezala. Bidearen mozketa honen arrazoia Otaola etorbidetik datozen autoen ibilera indartzea da, eta Santaines kalera joan nahi izanez gero, Laster enpresa dagoen bidetik igo beharko dira autoak.


Eroskiren zentro berria urte amaierarako zabaltzea espero da, baina biribilgune berria irailaren 1etik egongo da erabilgarri aurreikuspenen arabera. Biribilgunearekin autoen zirkulazio hobea lortzea espero da, eta Otaola etorbidetik datozen Eroski berrira zein Santaines kalera joateko aukera eskaintzeaz gain, Romualdo Galdosetik Santainesera joateko aukera ere emango da.

eibar kalea

Ego-Gain kalea

Herriko beste hainbat kalerekin egindakoaren haritik, 70eko hamarkadaz geroztik deitzen da Ego-Gain aurretik O'Donnell jeneral espainiarraren izena zeraman kalea. Ego erreka estaltzean sortutako kaleak aparteko garrantzia hartu du, Arrate hotela bertan egoteaz gain, autobus geltoki nagusia ere bertan dagoelako.

Pegora kopurua: 11. Erroldatutakoak: 157.



asteko
50.392
datua

agirik osatzen zuten Udal Liburutegiaren funtsa 2009. urtea amaitzean. Urtetik urtera titulu berriak gehitzen dizkiote bildumari: 1996an liburutegiak 11.210 izenburuz osatutako bilduma zuen. Gaur egunean materialaren berritze-tasa %11'35koa da eta material berriaren %59 erosi egiten da.

ARMERIA ESKOLAKO IKASLE OHIAK MARTXOAREN 27-AN ELKARTU ZIREN, URTEKO BATZARRA EGITEKO eta, ohikoa den moduan, eguna jai-giroan emateko. Goizean hainbat hitzaldi eta omenaldirako tartea izan zen: besteak beste, jubilatutako irakasleei eta 1985eko eta 1960eko proiektuei omenaldia egiteko aprobetxatu zuten jarduna. Ondoren, Arrate Hotelean egindako bazkariarekin agurtu zuten aurtengo ekitaldia, 60.a.

Irudia aukeratzeko lehiaketa

Bestalde, Armeria Eskolak bere mendeurrenaren irudia izango denaren diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, "helburua, men-

deurrenaren ikur izango den irudi hori izatea eta aldi berean, adimena, sormena eta ideia berriztatzaileak sustatzea da". Gehienbat Arte Ederretako ikasleek eta diseinu-enpresek parte hartzea bilatzen dute, "baina edozeinek har dezake parte lehiaketan".

Lanak Armeria Eskolan ber-

tan jasoko dituzte, maiatzaren 10-ean hasi eta maiatzaren 28ra arte. Irudia 3 dimentsiotan diseinatu beharko da eta, gero hainbat euskarritan erabiltzeko aukera izan dadin. Irabazleak 1.000 euroko saria eskuratuko du eta, horrez gain, 300 euroko akzesit bi banatze-ko asmoa dute.



Ikasle Ohien urteko batzarraren aitzakiarekin, hainbat lagun omendu zituzten martxoaren 27an.



Aparkalekua, eguraldiaren menpe

ATZO ZABALTZEKO ZEN ERREBALGO APARKALEKUA, BAINA BEZPERAN BOTA ZUEN EURIAK INAUGURAZIOA ATZERATZEA ERAGIN DU, Udalak ohar baten birtartez jakitera eman duenez. Udal teknikariak eguaztenez egon ziren beharren martxa bertatik-bertara ikusten, baina lurra bustita zegoen eta bertan margotu beharreko marrak ezin daitezkeela marraztu erabaki zuten. Hori dela eta, oraindik ez dute aparkalekua zabalduko eta, beraz, eguraldiaren arabe-

ra, inaugurazioa gehiago edo gutxiago atzeratuko da. Behin-behineko aparkalekua egiteko beharrak Leandro Gómez enpresak egiten dihardu, 150.000 euroko aurrekontuarekin; behin-behineko proiektua denez, lurra ez da asfaltatuko. Aparkalekua altuera bitan banatu dute: El Casco enpresatik gertuen dagoenak estazionamendu libreko 30 autorentzako tokia izango du; behe-rago, beste 68 autorentzako tokia egingo dute eta txandakako aparkaleku gisara ipiniko dute martxan.

EuskoTren-en zerbitzu hobetua


DEBA ETA EIBAR ARTEAN AUTOBUS-LINEA BERRIA IPINI DU MARTXAN EUSKOTREN ENPRESAK ETA IRAILERA ARTE zerbitzua indarrean egongo dela eman dute aditzera, herri bien arteko komunikazioa hobetze aldera. "Express" zerbitzua zapatu, domeka eta jai-egunetan eskainiko da eta herri bien arteko ibilbidean geldialdi bakarra egingo du autobusak, Elgoibarraren (Urasandi inguruan). De-

batik honako ordutegian irten-goto dira autobusak: 12.00etan, 13.10etan, 17.00etan, 18.10etan eta 19.20etan; Eibartik Debara joatekoak, berriz, 11.30etan, 12.40etan, 13.50etan, 16.30etan, 17.40etan eta 18.50etan abiatuko dira. Argibide gehiago behar izanez gero, 902543210 telefono zenbakira deitu daiteke edo, bestela, www.eusko-tren.es helbidean begiratu daitezke ordutegi eguneratuak.




Sendagillien aholku barik medikatzia da automedikaziñua. Batzurendako erosua da automedikatzia, ez dozulako medikura juan bihar, baiña gastu bat be bada. Espaiñiako Gobernuak farmazia gastuen razionalizaziñorako neurrixak hartu dittu eta 1.500 millioi euro aurreratzia espero da ondorioz.

Automedikatu egitten zara?



MARIA ELORDI
66 urte
etxeoandria

Normalian ez dot hartzen ezer nere kontura, miña aguantau egitten dot eta kitto. Burukomiñ haundixa badakat, sendagillia-rengana juaten naiz. Ez dakat sistema moduan hartuta automedikatzia, eta ez dot pentsatzen inguruan dakaten lagunek be holakorik egitten dabenik.



GLORIA PIEDAD GARCÍA
42 urte
etxeo bihargiña

Bai, beti. Gauzia da sendagilliak beti gauza berdiñak hartzeko esaten destala, holan, zer hartzeko esango destan jakinda, nik neuk erosi eta hartzen dot. Umiak sukarra badaka, badakitt zer hartu; eta nik burukomiña badakat, badakitt Espidifena hartu bihar dotela.

PEDRO ARISTONDO
72 urte
jubilaua

Medikuak agindutakua bakarrik hartzen dot. Iñoiz hartu izan dot bedarren bat tentsiño altua nekakako, baiña medikuak esan estan ia zeozer hartzen neban, orduan, bedar horrek hartziari lagatzeko agindu estan. Neurritz kanpo medikatzeo arriskua dakazu zure kontu egitten badozu.



PEDRO VIVAR
79 urte
jubilaua

Gaur, adibidez, anbulatorixora jua naiz eta ez dot medikorik euki. Halanda be, nik ez dot ezer hartzen sendagillia-rengazeta barik. Pentsatzen dot zenbat eta medikamentu gitxiago hartzia hobia dala. Gauza asko hartzia zure kalterako dala begittantzen jata.



BIRZIKLATZEKO BEREIZTU

EDUKIONTZI

HORIA


**Plastikozko ontziak,
latak eta brick
motako ontziak**



**Kartoizko eta
paperezko ontziak,
egunkariak eta
aldizkariak bakarrik**

EDUKIONTZI

URDINA



Gipuzkoako Bertsozale Elkartek antolatuta, apirillaren 25ian bertsuak hartuko ditugu herriko kale eta baztarrak, Gipuzkoako Bertso Eskolen VI. Egunaren bueltan. Egun osorako programaziñuarekin, probintzia osotik aillegautako 300 bat bertsozale gazte gurian alkartzia espero dabe antolatzailliak. Hori danori helburu garbi bateri jarraituta: eguna jai giro ederrian pasatzeko gogo bizixa.

Beste herri batzuetan ospatutako jaialdixeri errelebu hartuko detse aurtent Eibarren, Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunaren 6. ediziñua gurian egingo da-eta. Bertsozaliak honezkero ondo apuntau dabe hitzordua euren agenda eta kalendarixuetan: apirillaren 25ian, 10.30xetatik aurrera, bertsozaritzaren inguruko jaialdixak herritarrak zein kanpotik etorritako guztiak animauko ditte, helburu horri ja-

Bertsozale Elkartek ikastetxietan bertsozaletasuna indartzeko biharian dihardu azken urtiotan. Irudixan, Eibarko ikasliak kurtsu amaierako Coliseoko jaialdixan.



Bertso Eskolen jaixa, aurten Eibarren

**GIPUZKOAKO
BERTSO ESKOLEN
VI. EGUNA**

rraittuta antolau dituduen ekitaldixeri esker. Jaialdixa antolatziaren ardurua Gipuzkoako Bertsozale Elkartek eukitta be, Eibarko bertsozaliak zein beste talde askotako ordezkariak bat egin dabe, jai egun horretarako programaziñua danen artian preparatzeko. Tartian Asier Ibaibarriaga bertsozaliak jardun dau eta, berak kontau deskunez, "holako egunian ikas-

liak, araututako irakaskuntzako umiak izaten dira protagonista. Antolatzailliak aurreikusten dabenaren arabera, jaialdi egunian 300 bat ume etorriko dira, autobusetan, eguna jai gurian emoteko asmuarekin".

Batukadia eta Hip-Hop-a

Bertso Eskolen inguruko lehelengo jaialdixa 2005ian ospatu zan, Villabonan, eta ha-

rezkero urtero jarraipena izan daben ekitaldixa izan da. Hori bai, ediziño bakotxerako eszenarixua kanbixatzen juan da: Tolosaldeetik Oarsoaldera salto emon eban ekitaldixak eta Debagoiena, Buruntzaldea eta Urolaldea bisitau ondoren, aurtent Debabarrenak hartuko dau lekukua. Ibaibarriagaren berbetan, "jaixa egittiaz aparte, daguzen bertso eskolen arteko

Asteartero Eibarko alkatiak HAMAIRA BERBA
Irratsaloan orantzungo dizu, eguardiko
12.30etan.
Zure kaxa, proposamena, zalantza bidali
helbide honetara: eibar@herri-irratia.com
SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua)
5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz
943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

hartuemona sendotzia billatzen dau topaketak". Bertsozaliak Untzagan alkartuko dira eta hantxe aurtengo karte-leko protagonista dan Pantxika astuak ongietorrixa emongo detse, Kezka dantza taldekuak eskinduko daben aurrekuarekin batera. Hortik aurrera jaixak ez dau etenik izango, arratsaldeko

18.00ak arte: Adolfo Jainaga eta bere trikitixa eskolako ikasliak musikia ipiñiko dabe, baiña ez da hori izango entzungo dan doiñu bakarra: Antxua Bentan batukadaren diaborrak kalejiran jardungo dabe herriko erdialdeko kalietan. Bazkarirako tartia be egongo da, baiña ez da aparteko ezer preparau: bakotxak etxetik ekarririkua jango dau, ahalik eta bizkorren jai-xarekin segidu ahal izateko. Izan be, zezeriak eta ponyak egongo dira bazkalostian, nahi dabenandako eta Ustekabe fanfarrekuak goizeko musikarixerri errelebua hartuko detse, Coliseoraiño juango dan kalejiran. Eta antzokixan Bertsound System Hip Hop ikuskizun barrizailiarekin gozatzeko aukeria egongo da, 16.30xetatik aurrera. 18.00ak aldian kanpotik etorritakuak etxerako bidia hartzia aurreikusitta dago.

Ikastetxietan zaletasuna lantzen

Ibaibarriagak azaldu deskuenez, "Bertsozale Elkartiak urtiak daroiaz ikastetxiek alkarlanian, bai Eibarren baita beste herrixetan be, ikasliak bertso-lantza lantzeko aukeria euki deitzen. Horretarako alkartetik irakasliak juaten dira eskoletara, materixalarekin, ikasliak bertso-

Asier Ibaibarriaga ermuarra, Bertsozale Elkarteko idazkarixa izatiaz gaiñ, Eibarko Hankamotxako partaidia be bada.



laritzan trebatzera". Horren harira, azken urtietan Coliseo antzokixan hainbat jaialdi eskindu dittue Bertsozale Elkarteko programan parte hartu izan daben ikasliak, oso emaitza onarekin, gaiñera. Izan be, transmisioñuari arreta berezixa eskintzen dihardue bertsozalien alkartietatik azken urtietan, etorkizuna hortxe daguala jakitun.

Eta badirudi egindako ahallegiñak fruitua emoten diharduela. Eibarren bertan martxan

daguan Hankamotxak bertso eskolako partaide dan aldetik, Ibaibarriagak gaztien artian bertsozaletasunak gora egin dabela pentsatzen dau: "Tal-de bakarrarekin hasi giñan, helduekin, baiña iaz bigarren talde bat osatzia lortu genduan, umiekin. 8-14 urte bittarteko dozena bat bertsozale alkartzen dira barixakuero Portalean, bertsoan ikasi eta trebatzeko".

Bertso udalekuen eskintza

Bateri baiño gehixagori zaletasuna piztuko jako klasian ikasittakuarekin. Baiña ikas-turtia amaittuta be, nahi dabenak oporrek bertsoan trebatzeko aprobetxatzeko aukeria bada, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Bertso Udalekuak antolatzen dittue-eta. Maiatzaren 5era arte egongo da zabalik izena-emoteko epia. Informaziño gehixagorako www.bertsozale.com helbidia bisitau leike edo, bestela, 943694129 telefono zenbakira deittu. Bittartian, apirilkeko jaialdixak motorrak berotzen juateko eskinduko daben aukeria baiño horberik bada?

EGITARAUA

10:30etan: Eibarko Untzaga Plazan **alkartuko** dira gazte danak
11:00etan: Pantxika herriko ordezkariak eskindutako **ongi-etorri aureskuia**, Kezka Dantza Taldearen eskutik, eta Hankamotx **bertso-eskolaren agurra**
11:15etan: **Taldeko jolasa** Adolfo Jainaga trikitixa eskolak alaittuta
12:30etan: Antxua Bentan Batukadarekin batera, **kalejira** Eibarko erdiguneko kaleetan
13:30etan: **Bazkarixa**
14:30etan: **Zezenak eta ponyak**. Ondoren **kalejira** egingo dabe Ustekabe Fanfarriarekin, Coliseora iritsi arte
16:30etan: **Bertsound Sistem Hip Hop ikuskizuna**
18:00etan: **Agurra**

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - beheko eskualdea

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errozketa laber

Egoiberran (Signo poligonoan)

Partikular, inbua eta aseguru etxeri zerbitzuak

Koroak - Ekialak - Urtumanoako ekialak

Euskal Herri osoko ospitaleetan bertan zerbitzu

Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa

Funerarioa laber

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL

Bulego altzariak eta materiala

PAPERDENDA

Tel. 943 365892
 Faxe. 943 371686
 Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

KATU

KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

TEEN-
AJEA



6.000 EURO
irabazi nahi?

Lip
Dub
Lehiaketa
EIBAR



1. Euskarazko LipDub Lehiaketa jarri da martxan Eibarren. Euskera, euskal musika eta Eibar bera sustatzea helburu duen lehiaketan, edonork har dezake parte. Taldeak gutxienez 30 lagunek osatuta egon beharko dute eta euskeraz abestutako kantuek onartuko dira bakarrik. Informazio gehiagorako: eibar.org/lipdub

JOSU MENDIKUTE:

“LipDub-a egiteko lotsa baztertu beharra dago”

**- Zelan doa LipDub lehiaketa-
ren izen-ematea?**

Hiru taldek eman dute izena Eibar.org webgunearen bitartez. Oraindik taldeak eratzten ari dira, eta kalkulatzen dugu taldeak osatu ahala joango direla izena ematen apirilean zehar.

**- Nola sortu zen lehiaketa
egiteko ideia?**

Eibarko talde batek hartu zuen parte Citroenek antolatutako LipDub-ean. Animaralia izeneko lana 2. geratu da azken unean, prozesu osoan irabazten joan ondoren. Edozelan ere, Euskal Herrian grabatutako lehenengo LipDuba izan zen hori, eta hortik otu zitzaion Junkal Txurruka Udaleko Euskara teknikariari euskarazko musika-ekin ere halakorik egin zitekeela. Hitz egin eta proposamena Eibar Merkataritza Gune Irekia-ekin konpartitu genuen.

**- Animaraliak Donostian
egindako LipDub-ean hartu
zenuen parte. Horrelako zer-
bait egitea zaila da?**

Grabazio egunean besterik ez nintzen egon, goiz batean. Baina grabazioa egin aurretik gidoia prestatu behar da, eta

hori talde txiki batek egin zuen: sinkronizatuta izan behar du une bakoitzean nor agertuko den, zer egiten, zein dekoratu behar den, etab.

- Abilezia berezirik behar da?

Abilezia baino, ideia txukun batzuk ondo prestatzea da kontua: kantua jarri eta kameraren aurrean jartzeak ez du balio; aurrean bat dago eta ensaiatuta egon behar da. Kameralaria trebea baldin bada, hobeto, noski; izan ere grabatutakoa mozketarik gabe izango da lanaren emaitza. Eta garrantzitsuena lotsa galtzea, parte hartzen dutenek ondo pasa behar dute eta ikuslegoa bereganatu.

**- Nola prestatzen da LipDub
bat?**

Gomendatuko nuke lehenik taldean eztabaidatzea zer transmititu nahi duten; hortik abiatuta, gidoi bat lantzea bere baliabideak kontuan izanda. Gidoi hori banatu: grabazio egunerako kide bakoitzak ondo jakin behar du grabazioan izango duen eginkizuna. Eta errepikatu behin baino gehiagotan grabazioa, lehenengoan ondo irtetzea ez baita erraza.

Amaita Arriaga Lizaur

KIROMASAJEA
OIN ERREFLEXOLOGIA
MASAJEA (HARRI BOLKANIKOAK)

Ordua hartzeko: 652 76 13 36

MASAIA ERMUA-EIBAR-DURANGO

Iradi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Hamarkada osoa artistak sortzen

Hamarkada bat igaro da Ignazio Zuloaga institutuan batxilergo artistikoa ikasteko aukera lehenengoz eskaini zenetik. 10 urte, artistak eta artistak ez direnak sortzen, izan ere, Arte Ederretatik kanpo beste bide asko har daitezke batxilergo hau eginez gero.

Donostia eta Irungo zen-tu birekin batera batxilergo artistikoaren aitzindariak izan ziren Ignazio Zuloaga institutukoak. Berritasun handia zen arlo akademikoan. Hasieran kurtsoko 15 ikasle egoten ziren bataz beste. Gaur egun, berriz, 50 bat ikaslek dihardute batxilergo honetako kurtsu bietan.

Izenak adierazten duen bezala, artistak sortzen ditu batxilergo honek. Sortu eta hezitu. Baina Angel Guenaga irakasleak argi laga du Arte Ederrek ez direla ikasle hauen irtenbide bakarra, *“arkitektura, injeniaritza ezberdinak, kazaritza eta beste karrera asko egin daitezke”*.

‘Artearen bideak’

Batxilergo artistikoa dituen irtenbideen berri emateko, ikasle ohiek hitzaldia eskaini-

ko dute Portaleko areto nagusian apirilaren 22an 19.00etatik aurrera. ‘Artearen bideak’ izenburupean bost ikasle ohiek euren esperientzia kontatuko die bertara izaten direnei. Jose Antonio Azpilikueta eta Mikel Garate, adibidez, Arte Ederretako irakasleak dira EHU-n, eta lehenak Diario Vasco-ko ‘Supermendikute’ komikia egiten badu, bestea margogintzan da aditua. Josu Torrealdayk, bere aldetik, argazkigintzan dihardu eta estudioa jarri berri du martxan. Julen Agirre animazioari buruz arituko da eta Ane Aranberrik eskaparatismoaz hitz egingo du, *“arkitektura ez-iraunkorra”*, Guenagaren berbetan.

Bolonia Planaren sarrerak batxilergo artistikoaren irtenbideak zabaltzen dituela dio Guenagak. *“Orain ez da hain garrantzitsua zer batxilergo ikasten duzun,*




baizik eta zein irakasgai aukeratzeko dituzun”. Horren gainean, irakasleak dio batxilergo artistikoa publizitate txarra izan dela beti, *“eman den informazioa ez da ona izan”*.

Erakusketa Portalean

Batxilergo artistikoko ikasleek urtean zehar egindako lanak ikusgai egoten dira urtero erakusketa batean. Aurtengoa apirilaren 16tik maiatzaren 2ra egingo da Portaleko erakusketa aretoan martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. *“Jendeak ez du aurreritziarik izan behar”*, azpimarratu du Angel Guenagak. Egunerokoa egindako lanak egongo dira

bertan ikusgai, 40 bat parte-hartzaileen lanak: marrazketak, margolanak, argazkiak, ikus-entzunezkoak... *“Gainera denak ez dira arteko ikasleek izango; argazkilaritza, adibidez, beste batxilergoetakoek ere izena eman dezake-teelako”*.

Ikasleei ilusio handia egiten die erakusketak Guenagaren berbetan. *“Gurasoak eta inguruko herrietako jende asko joaten da, eta asko harrizten dira ikusitakoarekin”*. Aurten, gainera, erakusketaren prestaketan ere ibili dira ikasleak. *“Honelako zerbait prestatzea zein gogorra den ikusiko dute”*, dio Guenagak.




Euskal Astea La Sallen

La Salleko DBHko 3. mailakoek Portaleko Armagintza Museoa izan ziren, Eibarren egindako tresnak ikusten: josteko makinak, Lambrettak, bizikletak... Astearekin amaitzeko, bestalde, iaz hasitako Euskaraokarearen II. edizioa egin zuten. Bestalde, **La Salle-Isasi**

ikastetxean antolatutako Kultur Astearen barruan, Oh Happy Day!! programan parte hartzen duten Musika Eskolako Koro Gaztearen taldekide batzuekin egoteko aukera izan zuten.



Institutukoak Ingalaterran



Ignazio Zuloaga Institutuko Batxilergoko 1. mailako ikasleak Ingalaterran izan dira, Londresen eta Yorkshiren, hango ikasleekin egindako elkartrukearen barruan. Aurretik ingelesak izan ziren Eibarren.

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B
t. 943 208 330


T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57



HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional taldea
zure zerbitzura



Hortz, konplexua eta
komplikatu harrak
Hundelako kontrol...


PREBENTIBOAK... Tel. 943 20 18 51

eibartarren irribarrea pizten



Bista Eder
DENTISTAK

Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75



- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

RPS 04/02



IRAZABAL
clinica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

OSASUN

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta **Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa



Egunero, 8. behea - Telf.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Fisioterapia



ANE MENDIA

970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

Tel. 943 53 06 42

ane_mendia@hotmail.com



FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zbkia.


San Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14
Telefonos: 943 12 70 78



GIDA

Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASBAGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazioa, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskatnet.net

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

HELVIDE BERRIA
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. ez. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

Okulistak

OKULISTAK

Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartea
Tfnoa: 943 20 19 82

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Erdiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@terra.es

Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barría, 2 - 2º
Tfnoa: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu
deitu 943-206776 telefonora

Deporreko mendi taldea Leongo iparraldean izan da Aste Santuan

KLUB DEPORTIBOKO 23 LAGUNEKO TALDEA MENDILERRO KANTAUARIARREAN IZAN DA ASTE SANTUAN, Leongo Laciana parajea. Eguenean, Collada de Carmonatik Celiseraino joan ziren, bidean Gandara mendia eta La Cueva del Soplaotik pasatuz. Behin Lacianan, Villablino bertako hiriburuan hartu zuten ostatu. Hurrengo egunean eguraldiak ez zieten laga Catoute mendiko ton-

torra zapaltzen, nahiz eta 2.000 metrotik nahiko gora igo. Zapatuan, eguraldiak kaxkar jarraitzen zuenez, erromatarren sasoiko urre meategiak izandako Las Médulas ikustera joan ziren, hiru ordu eta erdiko itzulia egiteko. Domekan mendizaleak talde bitan banatu ziren: batzuk Cebolleu mendira




igo zuten, La Peral herritik; eta besteak Cibea haranean lau orduko ibilaldia egin zuten. Ondoren talde biak Genestoso herrian elkartu ziren Aberri Eguna ospatzeko. Astelehen goizean, baina, zerua urdin-urdin lagata, autobusa hartu eta Eibarrera itzuli beharra izan zuten mendizale taldeak.

Garrantzi handiko Arrate-Antequera gaur 21.00etan Ipuruan

AZKEN POSTUETATIK IHES EGITEKO LEHIA GERO ETA ESTUAGO dagoen honetan, Arratek Antequera hartuko du gaur 21.00etatik aurrera. Laubost talde daude borrokan sartuta eta Arrateri komeni zaio arriskutik irtetzea lehenbailehen. Cuencan jokaturako azken partiduan ez zuten maila onik eman Eibarko taldeak eta, horrela, ur handietan sartzen hasi dira Julian Ruizenak. Antequeran, bestalde, gol bategatik irabazi zuten Arratek, baina sailkapenean lau puntu aurretik doaz andaluziarrak, arriskutik ia guztiz libre.

Jubenilak Euskal Ligarik gabe

Aurreko faseetan nagusi izanda ere, eibartarrek ezin



izan zuten kantxa faktorea aprobetxatu Euskal Liga irabazteko eta, azkenean, Irungo Bidasoak bereganatu zuten titulu. Azken hauek Arrateri 31-30 irabazitako partidua erabaki zuten txapela; dena dela, talde biak joango dira Espainiako txapelketako sektore fasea jokatzerara, Euskal Ligako lehengo biak moduan. Arratek, bestalde, 30-25 irabazi zion Ereintzari eta gauza bera egin zuten, zailtasun handiz izan bazen ere, Zarautzekin (29-28).



Ruslan Pogorelov eta Haritz Garroren arteko norgehiagoka txapelketan.

Haritz Garro maila onean Donostiako xake txapelketan

150 XAKELARIK HARTU DUTE PARTE DONOSTIAN 33. NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETAN, tartean Eibarko Klub Deportiboko Haritz eta Julen Garro anaiak eta Jon Arana. Haritz Nazioarteko Federazioaren zerrendan 2.100 puntutik behera dituzten jokalarien artean 2. onena izan da. Daniel Barria nazioarteko maisu txiletarraren aurka lortutako berdinketaren ondoren, Ruslan Pogorelov maisu handi ukrainarraren aurka jokatzeke aukera izan zuen. Bestalde, martitzenean hasiko da Unibertsitate Laboralean Euskadiko jubenil mailako txapelketa eta Edu Olabe eta Julen Garro tartean izango dira.

Ganix Rodríguez bigarrena Floreagan

GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO BOLA TXAPELKETAKO 1. JARDUNALDIAN, Asola-Berriko Ganix Rodríguez (5 txirlo) eta Bittor Ugarteburu (4) 2. eta 3. postuetan sailkatu ziren, tiraldia jokatu zen bolatokiko Jose Muñoz ordezkariaren atzetik (6 txirlo bota zituen honek). Biharko jardunaldia Elgoibarko San Roken jokatuko da.



Sergio Salgado eta Jon Losada eibartarrak, Txutxin Arangurenekin.


Deportiboko ordezkari bi izan ziren Nafarroako squash txapelketan

EURETAKO BAT, GAINERA, KONTSOLAZIOZKO KUADROKO TXAPELDUNA IZAN ZEN: Sergio Salgado izan zen bera. Kuadro printzipaletik bezperan kaleratua izan eta gero, Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak erraz irabazi zuten kontsolaziozkoan, Fermin Martínez (3-1), Txutxin Aranguren (3-1), Aitor Elizalde (3-0)

eta Toño Romero (3-0) aurkari nagusituz. Jon Losadak 2. mailako txapelketan hartu zuten parte eta, finalerdietan 2-0 galtzen joan eta gero, bina berdindu eta, irabaztekotan zenean, lesionatu egin zen eta lehia laga behar izan zuen. Eduardo de Carlos-ek irabazi zuten, bestalde, Nafarroako txapelketako kuadro printzipala.

Euskal Herriko Itzuliaren 5. etapa hasiko da gaur Untzagan

ASTELEHENEAN ZIERBENAN HASI ETA BIHAR ORION AMAITUKO den Euskal Herriko Itzuliaren 50. edizioak atzo Arrate eta gaur Eibar ditu ardatz. Laugarren etapa atzo Arraten amaitu eta gero, gaur eguerdian Untzagan izango da txirindulari profesionalen tropela, 13.00etan 5. etapari hasiera eman arte. Bestalde, 2011ko egutegia ere jakitera eman dute eta, iaz hasitako antolakuntza berriari jarraituz, Eibar izango du ardatz beste behin: aurtengo moduan, etapa bat Arraten amaituko da eta hurrengoa Eibartik irtengo.



Victor Cabedo nagusi 39. Valenciagan

BESTE ZORTZI TXIRRINDULARIAREN ERASOARI EUTSIZ, Seguros Bilbaoko Victor Cabedo lehena izan zen Bidebarrietako helmuga puntua zeharkatzen. 23 urtetik azpiko sailkapena ere bereganatu zuen txirindulariak lau ordutik behera behar izan zuen (3h58'12") ibilbidea osatzeko. Mendiko sailkapena Daniel Pla-

zarentzat izan zen, tarteko helmugena Borja Abasolorentzat eta taldeka Lizarte izan zen nagusi Seguros Bilbaoren denbora berarekin. Valenciaga jokatu ondoren, Raul Alarcón da Espainiako Kopako liderra, 221 punturekin, eta Cabedo Eibar-ko irabazleak 7. postura egiten du jauzi (23 urtetik azpikoenen artea, 3.era egin du jauzi).

Nora Varela igerilaria estatuko hamar onenen artean



URBAT-URKOTRONIK-EKO IGERILARIAK MARTXOKO AZKEN ASTEBURU BETAIA IZAN ZUEN, Futuroscopetik Madrilerainoko bidaia azkarrarekin batera. Infantil mailako Espainiako txapelketetan, 9. postua lortu zuen eibartarrak braza estiloko 100 metrokoan (parte-hartzaileen 21. marka zuen), bere marka pertsonala hobetuz, eta 15.a izan zen 200ekoan.



Mailari eusteko lehia Eibar Rugby Taldearentzat Durangon

DENBORALDIA AMAITZEKO AZKEN JARDUNALDIAN SAILKAPENEN AZKEN BIEK NEURTUKO DITUZTE INDARRAK Durangon domekan. SAILKAPENEN AZKENA ez izateko lehia izango da jokoan, asko esan nahi baitu postu batean edo bestean amaitzeak (ondorengoko norgehiagokei begira, aurkari errazagoak izango ditu gorago geratzen denak): aurretik geratuz gero, Ohorezko B

mailako beste ligako azken sailkatuaren aurka jokatu beharko du eta, bestela, azken-aurrekoarekin. Azken jardunaldian eibartarrek gogor egin zioten aurre Hernani liderrari, azkenean amore eman behar izan bazuten ere (19-25); partidu gogorra izan zen eta DYAKOAK behin baino gehiagotan sartu behar izan zuten zelaira. Epailerekin ez zuten lar asmatu, batez ere Eibar Hierros Anetxekoen kalterako.

Juan Luis Ordorika Arizmendiarr eta I. Urteurrena (2009-4-13)

Apirilaren 13an moztu zuen adarra zoritxorrek, egin zuten negarra enber, adar eta adaxkak, hartu zuen lurra negar hura eta bihurtuko du indarra, haziko da oraindik arbola beti adar moztua gogaan.

ZURE FAMILIA



Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi berezia egingo da hilaren 12an, 17.30etatik aurrera, Umeen Liburutegian. Txabi Arnal Ermuko idazleak "Tabuak haur literaturan" hitzaldia eskainiko du eta, horrez gain, bitartean umeen zaintza egongo da.



TXABI ARNAL, idazlea:

"Umeak ez dira tontoak, umeak dira"

- Zeintzuk dira haur literaturaren tabu handienak?

Besteak beste, heriotza, homosexualitatea, arrazismoa, gerra, gatazka psikologikoak eta gaixotasunak (fisiko eta psikologikoak).

- Zergatik tabu horiek?

Gai horiek ez direlako erosoak, ez helduentzako, ez umeentzako. Gainera, helduok ez dakigu gaiari nola heldu, ez dakigu zer esan. Galdetzen digutenean ez dakigu zer erantzun, guk tabu horiek bizi izan ditugulako, eta gure buruak ez daude prestakuta horiei erantzun koherentea emateko. Orduan, helduon erantzuna ezkatutzea izaten da eta tabu bihurtzea.

- Gauza asko zaindu behar dira haur literatura egiteko?

Kontzeptu batetik abiatu behar dugu: haur literatura literatura da. Zer zaindu behar da? Kontuan hartu behar dira balio literario eta estetikoak, beste edozein literatura motarekin egiten den bezala. Hor ez da salbuespenik egin behar. Batzuetan justu kontrako egiten dugu eta horregatik emaitzak ez dira batere onak izaten. Batzuetan ikusten dugu umeentzako ipuinak oso 'ñoñoak' izaten direla, oso samurrak, baina zentzu txarrean esanda, samurra izanik oso literatura polita egin ahal

delako. Umeentzako gauza askorekin gertatzen da umeak tontotzat tratatzen ditugula eta ez dira tontoak, umeak dira. Hor dago muga eta bereizten jakin behar dugu. Umeak denetarik nahi du eta, kalitatezkoa bada, hobe.

- Zure lanetan aipatutako tabu horiek tratatzen dituzu?

Idazten dudanean ez dut pentsatzen: "Tira, idatziko dut tabu honen kontra". Istorio bat pentsatzen dut eta hori garatzen dut. Gero, istorioak horrela eskatzen duelako, sartzen badut egoeraren bat tabu bat jorratzen dena, ongietorria, baina nik ez dut bilatzen; gainera, ez da bilatu behar. Umeekin gertatzen da beti gabiltzala balio pedagogiko baten bila eta niretzat horrek kalte egiten dio haur literaturari.

- Haur literatura egitea zaila dela esango zenuke?

Zaila da argitaratzea, eta haur literaturan gehiago. Argitaletxeak nahiko itxiak dira; formato bat daukate eta, horretara moldatzen ez bazara, nahiz eta liburu ona idatzi, ez dizute argitaratuko. Baina edozein gauza idaztea bezain zaila da haur literatura. Batzuetan zehaztasun gehiago eskaintzen du testuak laburragoak direlako, baina testuak laburragoak izan arren, istorio oso bat kontatu behar duzu.




1930etik 36ra arteko Eibarko Txistularien Banda. / CASTRILLO-ORTUOSTE

Txistularien 75. urteurrena ospatzen

EIBARKO UDAL TXISTULARI BANDAK LEHEN KONZERTUA EMAN ZUELA 75 URTE BETEKO DIRA APIRILAREN 16-AN eta, hori gogoratzeko, asteburu honetan bertan hasiko den egitarau berezia antolatu dute, eguazten eguerdian prentsaren aurrean egindako agerraldian azaldu zuten moduan. Domekan, apirilaren 11n, txistularien lehen kontzertu hori gogoan izango dute eta, horretarako, 1935eko apirilaren 16 hartan entzun ziren pieza berberak eskainiko dituzte (Errepublikaren ereserkia izan ezik, partiturarik aurkitu ez dutelako). Egitaraua errepikatzeaz gain, kontzertuaren formatuari ere eutsiko diote eta, horregatik, domekan 12.30etatik aurrera Coliseoak hartuko duen emanaldian Cielito Musika Bandak ere hartuko du parte eta txistu-

lariek atsedendaldian joko dute, lehen kontzertuan egin zuten moduan.

75. urtemuga ospatzeko ekitaldiak urte honen amaierara arte garatuko dira. Besteak beste, maiatzean Cielito Musika Bandarekin batera lehenengoz kontzertua emango dute eta ekainean ganbera-musika oinarri izango duen beste emanaldi bat eskainiko dute, hainbat instrumentistaren laguntzarekin. Eta San Juan jaien bueltan, aurtengo karrozak txistulariak omenduko dituela aurreratuko dute. 1977an 200 txistulari batzera ailegatu zen banda, baina gaur egun Usartza Txistulari Banda Elena Pérez, Enrique Montero, José Luis Pérez Sarasketa, Mireya Astiz, Iraixe Giménez, José Miguel Lascurain, Asier Castelos, Javier Zorrazkin, Germán Ereña eta Iñaki Orbegozok osatzen dute.



Artisten Elkarteak Portalean

URTEROKO MARTXARI HELDUTA, EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAK TALDEKAKO ERAKUSKETA ANTOLATU DU. Gaur arratsaldean inauguratuko duten erakusketa maiatzaren 2ra arte egongo da ikusgai Portaleko erakusketa aretoan. Artisten Elkarteak herriko 160 bat kide batzen ditu eta gaur zabalduko duten erakusketan horietako 45en margolanak zein eskulturak erakutsiko dituzte. Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik: martitzene-tik domekara, 18.30etatik 20.30etara.

Antzerkia, dantza eta flamenkoa apirilera

HIL HONETAKO KULTUR-ESKAINTZAREN BARRUAN GUSTU OSO EZBERDINAK ASE-TZEKO moduko ikuskizunak aurkitu ditzakegu. Apirilaren 16an, 20.30etatik aurrera Juan Pinilla flamenko-kantariak "Malditos" izenburuko ikuskizuna eskainiko du Coliseoan (7 euro). Sari ugari jaso dituen artista gazteak flamenko errezitaldi klasikoari berritasunak gehitu dizkio eta, besteak beste, Groucho Marx, Chavela Vargas edo Nietzscharentzako tartea aurkitu du olerkari frantsesetan oinarritutako ikuskizun honetan.

Antzerki programazio erregulararen barruan, berriz, hileroko moduan umeendako ikuskizun bat eta helduendako beste bat taularatuko dira Coliseoan: Sointek Produzioak taldeak Tatxin eta Tattxan clown-bikotearen ikuskizun musikal dibertigarria eskainiko du hilaren 17an (17.00etan, 3 euro) eta hilaren 23an, berriz, Hika teatroak "Aitare-



Juan Pinillak "Malditos" izenburuko ikuskizuna eskainiko du.

kin bidaian" antzezlanaren aurkeztuko du (20.30etan, 8 euro). Eta apirila agurtu aurretik, Filgi Claveriek zuzentzen duen Dantzaz Konpainiak "1.01" lau koreografiak osatutako dantza-ikuskizuna eskainiko du (apirilak 30, 20.30etan, 8 euro).

Argazkigintza digitala ikastaroa

EGUAZTENEAN AMAITUKO DA ARGAZKIGINTZA DIGITALAREN INGURUKO IKASTAROAN PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA. Jose Valderrey-k emango duen ikastaroan

parte hartzen dutenek argazkigintza digitalean lehen urratsak emateko aukera izango dute. Klaseak apirilaren 19an hasi eta maiatzaren 26an amaituko dira. Ikastaroa Portalean emango da, 19.00etatik 21.30etara eta matrikulak 46 euro balio du Eibarren errolatuta daudenentzat (besteentzat 77 euro). Interesatuak Pegoran aurkeztu beharko dituzte eskaerak. Gehienez 16 ikasle onartuko dituzte, baina horiek baino gehiagok izena emango balu, zozketa bidez aukeratu dituzte parte-hartzaileak.



Ikastolaren jaialdia hilaren 17an

JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLAK MARTXOAREN 11-N BETE ZUEN MENDE ERDIA eta, 50. urteurrenaren harira antolatutako egitarauari jarraituta, apirilaren 17rako jaialdi berezia antolatu dute. Astelena frontoian ospatuko den jaialdia 19.00etan abiatuko da eta, besteak beste, honako hauek parte hartzea dago aurreikusita: Norton, Kokein, Asier Serrano, Mursego, Kezka Dantza Taldea, Adolfo Jainaga trikitilaria, Gorka Fernández eta Jon Zubizarreta bertsolariak eta Mogel-Isasiko ikasleak, aerobik eta break-dance erakustaldietan. Horrez gain beste sorpresa batzuk egongo direla aurreratu digute antolatzaileek.



Imanol Elorzaren oleoa.

Ima eta Imanol Elorzaren erakusketa

GAUR 20.00-ETAN ZABALDUKO DUTE ERAKUSKETA IMA ETA IMANOL ELORZA ARTISTEK UNTZAGAKO JUBILATU ETXEAN. Aita-alabak elkarrekin erakutsiko dituzte euren lanak: Imak eskulturak eta Imanolek, berriz, olioak. Erakusketa maiatzaren 4ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara. Erakusketa hilaren 23an abiatuko den XVII. Nagusien Hamabostaldiaren inguruan antolatu da.

laburrak

MUSIKARIEN KONTZENTRAZIOA

Euskadiko Ikasleen Orkestra osotzen duten 87 gazteak Hezkuntza Esparruan daude egunotan, Irun, Bilbo eta Gasteizen emango dituzten kontzertuak prestatzen. Musikariak 12 eta 18 urte bitarteko ikasleak dira eta zapatura arte egongo dira Eibarren: lehenengo kontzertua bihar bertan eskainiko dute, Irunen; apirilaren 17an Bilboko kontzertu batorioan joko dute eta hurrengo egunean Gasteizen eskainiko dute emanaldiarekin agurtuko dute bira.

HARIKA EMOTEN

Martitzen arratsaldean, Harixa Emoten literatur-solasaldia egingo da 19.00etan ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11). Saioan parte hartzea animatzen direnak Asier Serranoren "Erlojugilea" liburuaren inguruan berba egiteko aukera izango dute. Antxon Narbaizak gidatuta.

LEHIAKETAK MARTXAN

Udalak hainbat lehiaketarako deialdia zabaldu du: aurtengo San Juan jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa, alkohol larregi edatearen kontrako pegatina hautatzeko lehiaketa eta hurrengo ikasturtean Eskola Agenda apaintzeko diseinuaren ingurukoa. Lanak maiatzaren 14ra arte jasoko dituzte Pegoran eta informazio gehiago eskuratzeko ere bertara jo daiteke.


Asier Serranoren**kolaborazioa****Knerlkumeko erresuma**

Gaurkoan, barne gatazkak konpontzeko handiegiak eta kanpo gatazkak konpontzeko txikiegiak sentitzen garen gaurko egun honetan, aspaldiko kondaira bat etorri zait gogora: Ekialdeko Knerlkumeko erresuman mendeak zeramatzen gerran (ez dio inporta gerra piztearen hasierako zioak), kontua da, lubakiaren alde bateko Nilftxukeko gudariak suetena aldarrikatu eta gudatokia utzita etxera itzuli zirela. Estrainean, herrian, koldartzat hartuko zituzten beldur baziren ere, gerra luzeaz asperturik zegoen herriak suetena aldarrikatu Nilftxukeko gudarien erabakiaren ausardia mirestu zuen. Gerrako antzeak besterik ez zekiten gudariak ilea kaskamotz ebakita eramatearen bereizgarria zeukaten. Hiltzeko armak herria altxatzeko lanabesez ordezkatu zituzten eta Knerlkumeko erresuman galsoroak eta zekale-landak loratzen hasi ziren bezala, Nilftxukeko gudariak ilea luzatzen hasi eta herri berriaren partaide bilakatu ziren.


Etena onartu ezin zebiltzaten lubakiaren bestaldeko Txolmerirteko soldaduetako ausartenak gudatokian bertan usteldu ziren zain, nora jo ez zekitela. Koldarrenei, etxera bueltatu eta bufoi lanak betetzea beste erremediorik ez zitzairen geratu.

musika**Pello Ramírez**
Eskuz lurrari

Pello Ramirez musikari eta konposatzaileak orain dela bost urte kaleratu zuen lehen diskoa: Haize oihalak. Orain bakarko bigarren lana aurkeztuko digu: Eskuz lurrari. Eskuz lurrari diskoaren kontzeptua instrumentala da; akordeoia, txeloa eta pianoa izango ditu ardatz. Konposizio guztiak Pello Ramirezek dira, baita diskoaren moldaketa, zuzendaritza eta produktzioa ere.

**Ze Esatek!**
Ze Esatek!

Ze Esatek taldeak jaita eta dantza, doinuen algaren artean, musika bihurtzen ditu. Ze Esatek taldeak musikaren plazerra abentura bezala hartu du. Ska, reggaea eta rock festa giroan. Ze Esatek taldeak bere arte konprometituarekin ez dio muzin egiten, inola ere ez, kaleko eta hiriko matxinadari, ezta honek dakartzan bizitzeko aukera suspengarri eta zintzoagoei. Ze Esatek taldeak da. Hamar lagun oholta gainean ongi konpontzeko entsegu askoren ondoren dator.

**Iratxe Esnaola**
Galerna

Erritmoaren erabilera zehatzez eta tentsioari une oro eutsiz, sentimenduen biluzteariketa bikaina egin du egileak lan honetan. Erromantizismoaren antipodetan, pertsonaiekiko distantzia nabarmen uzten duen idazkera hotz eta zorrotz baten bidez, opera prima batean eskertzekoa den trebezia erakusten digu Iratxe Esnaolak.


Karlos Linazasoro
Hamazazpikotan

Haikua Japoniako poesia-molde tradizional bat da, bere trinkotasun eta edertasunagatik mundu osora zabalduta dena aspaldi honetan. Hamazazpi silabako poemamodu hori bereganatu du Linazasorok liburu honetarako, eta hiru partetan banatu du liburua: natura, maitasuna eta denbora.

**literatura**

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IONE Arritokieta Martínez, hillaren 1ian hiru urte bete zenduazelako. Amatxo, aitatxo eta Aneren partez.




Zorionak, NAHIA, zure urtebetetzian. Askok maitte zaittugu. Zure aitta eta amaren partez.



Zorionak, MARKEL Maiora Maiztegi, gaur urte bi egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, GAROA eta aitaitxa EDUARDO gaur zuen urtebetetzia dalako. Laztan bat etxekuen partez.



Zorionak, LUKAS Del Campo Agirre, domekan urte bi egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.

JAOTAKOAK

- Izaro Bilbao Oregi. 2010-III-24.
- Uxue Martín Barbero. 2010-III-27.
- Peru Baskaran Aierbe. 2010-III-27.
- Aner Martín Peral. 2010-III-29.
- Ane Alberdi Barrenetxea. 2010-III-30.

HILDAKOAK


- M^a Pilar Mendizabal Arozena. 77 urte. 2010-III-25.
- Eloisa Txopitea Zubillaga. 95 urte. 2010-III-25.
- Bitxori Arizmendiarieta Arrese. 87 urte. 2010-III-26.
- Pascual Catalán Miranda. 80 urte. 2010-III-27.
- Felisa Etxebarria Larrañaga. 65 urte. 2010-III-28.
- Maria Uribarri Otadui. 87 urte. 2010-III-29.
- Emiliano Iturrino Intxausti. 86 urte. 2010-III-29.
- Alfredo Iglesias Lamas. 88 urte. 2010-III-29.
- Jose Gallego Incógnito. 89 urte. 2010-III-31.
- Charo Gutiérrez Lonbide. 92 urte. 2010-IV-1.
- Juan Barrutia Artetxe. 75 urte. 2010-IV-4.
- Marta Guenaga Gómez. 30 urte. 2010-IV-4.
- Ines Amores Sánchez. 94 urte. 2010-IV-5.
- Elena Unzeta Larrañaga. 96 urte. 2010-IV-5.
- Maite Ugartexea Aulestiarte. 77 urte. 2010-IV-6.
- Pili Ibáñez Basterrika. 49 urte. 2010-IV-8.

zinea Coliseoan

9an, 20.30etan;
10ean, 16.00, 17.00, 19.15, 19.45 eta 22.30etan
11n, 16.00, 17.00 eta 20.00etan; 12an, 20.30etan

"Millennium 3"


Zuzendaria: Daniel Alfredson
 Aktoreak: Michael Nyqvist, Noomi Rapace, Annika Hallin, Johan Kylén...



Lisbeth Salanderrek ihes egitea lortu du heriotza beldurgarri batetik eta amasa hartuko du. Baina badago hilketa hirukoitza gaineratu nahi diona. Mikael Blomkvist kazetariak egiaren atzetik jarraituko du eta Lisbeth-en lehenaldi ilunaren bila arriskatuko da.

"Corazón rebelde"


Zuzendaria: Scott Cooper
 Aktoreak: Jeff Bridges, Maggie Gyllenhaal, Robert Duvall, Tom Bower...



Bad Blake country musika jotzen duen abeslariak ibilbide luzea egin du: ezkontza gehiegi, urte gehiegi errepidean eta baita alkohol gehiegi ere. Hala ere, mundu horretatik irtetzea nahiko du, Jean kazetariak eskainiko dion laguntza aprobetxatuz.

"Querido John"

Zuzendaria: Lasse Hallstrom
 Aktoreak: Channing Tatum, Amanda Seyfried, Richard Jenkins, Henry Thomas...



Gazte errebelde batek ikasketak laga eta armadan sartuko da, bere bizitzarekin zer egin jakin ez dakiela. Baina Savannah bere ametsetako neska ezagutuko du eta berarekin gorabehera askoko harremana izango du, bizitzako egoerak markatuta.

"La niñera mágica..."

Zuzendaria: Susanna White
 Aktoreak: Emma Thompson, Ralph Fiennes, Rhys Ifans, Maggie Smith...



Nanny McPhee umezain magikoa bere gizona gerran duen Isabel Green anderearen landetxera helduko da. Greenen seme-alabak hiritik etorritako lehengusu ume-mokoekin dihardute borrokan. Horregatik, Nanny magikoak bost lekzio emango dizkie umei.

horoskopoa

ARIES

Sasoi ona kirola egin ta naturaz gozatzeko. Eguraldi onak suspertu egingo zaitu eta zure osasunak ederki eskertuko du hori.

TAURUS

Datorren astea ez da aurrekoa bezain lasaia izango, baina akzio hori gustatu egingo zaizu. Ez zaitetz gehiegi estresatu hala ere.

GEMINI

Aste Santuaz ahal bezain beste gozatu ez duzun sententzia edukiko duzu eta gauzak beste modu batean ikusiko hemendik aurrera.

CANCER

Badirudi ordu aldaketak eragin bikaina izan duela zuegan; azken aste biak zoragarriak izan dira zuretzat eta horrela jarraituko duela diote astroek.

LEO

Ezin duzu dena jakin eta lagun batek esan dizun zerbaitek asko harritikoz zaitu. Ez pentsa dena kontrolpean eduki dezakezunik.

VIRGO

Libre zara nahi duzuna egiteko eta askatasun sententzia horrek izugarriko poza sentiaraziko dizu. Aspaldian ez zara horrela sentitu.

LIBRA

Ekaitzaren ostean barealdia datorrela diote eta horrela izango da zure kasuan ere. Ekaitzak sortutako kalteak konpontzeko ordua da.

SCORPIUS

Familiakide batek zure laguntza beharko du eta bere alboan egon beharko duzu denbora batez. Zure bihotz ona ederki eskertuko du.

SAGITTARIUS

Eskarmentu handia duen pertsona zara eta horrek indartsuago egiten zaitu egoera txarren aurrean. Hemendik gutxira egiaztatuko duzu.

CAPRICORNIUS

Diru-zorroa poltsikotik behar baino gehiagotan ateratzen duzu eta zure ekonomiak ederki pairatzen du hori. Kontrolatu gehiago gastuak.

AQUARIUS

Aspaldian ikusi ez duzun lagun batekin egingo duzu topo, aspaldiko kontuak gogoratzeko. Pozgarria da horrelako harremani eustea.

PISCIS

Baliteke gauzak beti ez iritetzea ondo lehenengo saiakeran, baina ezin duzu etsi horregaitik. Ez makurtu burua hain erraz eta ekin gogor!

Zapatua 10

ERREPUBLIKA GOGOAN

19.00.- Kantaldia: Fermin Balentzia. Antolatzailea: Ahaztuak 1936-1977. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-en irteera. Untzagan.

FOBALLA

18.00.- Eibar KE eta Racing de Ferrol taldeen arteko partidua. Ipuruan.

Domeka 11

KONTZERTUA

12.30.- Usartza Txistulari Bandaren eta Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

ERREPUBLIKA GOGOAN

13.00.- Ekitaldi publikoa: errepublikaren bandera igotzea, bertsolariak, dantzariak... Antolatzailea: Ahaztuak 1936-1977. Untzagan.

PELOTA

17.00.- Xala-Merino vs Olazabal-Pascual. Retegi Bi vs Beroiz. Apezetxea-Ladis Galarza vs Iban Pérez-Galarza VI.a. Astelena frontoian.

Astelehena 12

IKASTEN

16.00.- Sendabelarren Foroa: Berroa. Portalean.

IKASTAROA

17.00.- Boluntario eta elkarteetako kideentzat. Portalean.

HITZALDIA

17.30.- "Tabuak haur literaturan", Txabi Arnal-en eskutik. Umeen liburutegian.

Martitzena 13

IKASTEN

10.00.- Hitzaldia: "¿Por dónde camina la literatura contemporánea? Un viaje a través del relato breve", José Domingoren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

GURASOAK MARTXAN

18.30.- Hitzaldia: "Autoestima". Aldatze ikastetxean.

HARIXA EMOTEN

19.00.- Harixa Emoten literatur tertulia. Asier Serranoren "Erlojugilea" liburua. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarlean).

SAN JUAN EGITARUA

19.00.- Jaietako egitaraua prestatzeko bilera. Portalean, 1. solairuan.


Eguena 15

IKASTEN

10.00.- Hitzaldia: "Lenguaje cinematográfico" (2. zatia), Victor Iriarte-ren eskutik (sarrera libre). EPAn (Isasi, 39).

GURASOAK MARTXAN

18.00.- "Zer jakin behar dute gurasoek sare sozialei buruz?" ikastaroa. Portalean.



sarrerak

salgai

MUSIKA:

"Los malditos".

Juan Pinilla-ren flamenko kontzertua.

Apirilak 16, 20.30etan.

ANTZERKIA:

"...Tatxin Tatxan".

(Sointek Produksioak).

Apirilak 17, 17.00etan.

"Aitarekin bidaiari".

(Hika Teatroa).

Apirilak 23, 20.30etan.

DANTZA:

"1.01".

(Dantzaz Konpainia).

Apirilak 30, 20.30etan.


DENBORAPASAK

SUDOKUA

			4			1	3
	8			6			
6		3		7		5	
			6			7	
5		6			8		1
	4			9			
	3			8		7	9
			2			4	
4	6			5			

6	2	9	4	8	7	1	9	5
1	9	7	2	3	5	6	8	4
4	8	5	1	8	9	7	2	3
2	5	9	8	4	8	3	7	1
8	6	4	7	1	3	9	5	2
7	3	1	5	9	2	4	6	8
3	4	6	9	5	8	2	1	7
5	1	2	6	7	4	8	3	9
6	7	8	3	2	1	5	4	6

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- Apirilaren 11ra arte
JOSE LUIS IRIGOIEN-en "Senegal" argazki erakusketa. *Debako Turismo Bulegoan.*
- Apirilaren 18ra arte
MARIANO GARAY-ren argazki erakusketa. *Topalekuan.*
- Apirilaren 30era arte
CANDIDO BARCO-ren "Laos" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- KLUB DEPORTIBO**ko argazki taldearen "Aratosteak" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**-en argazki erakusketa. *Arteka liburu-dendan (Artekale, 20. Durango).*
- Maiatzaren 2ra arte
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA-ren taldekako erakusketa. *Portalean.*
- Maiatzaren 4ra arte
IMA ELORZA (eskulturak) eta **IMANOL ELORZA** (olioak). *Untzaga jubilatuaren etxean.*

lehiaketak

- **Lip Dub lehiaketa.**
Gaia: Eibarko merkataritza eta ostalaritza. Informazioa: *Apirilak 29ra* arte, www.eibar.org helbidean.
- **Sanjuanak 2010 Eibarren kartel lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **Alkohol Gehiegikeriaren Kontrako Umorezko Pegatina Lehiaketa.**
Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.
- **2010-2011 Eskola Agenda argazki lehiaketa.**
Norentzat: 12 eta 18 urte bitarteko eibartarrentzat. Informazioa eta lanak entregatzea: *Maiatzak 14ra* arte, Pegoran.

ikastaroak

- **UEUko udaberriko ikastaroak.**
Izen-ematea: Markeskuan edo www.ueu.org
- **Argazkilaritza Digitala (hastapenak).**
Noiz: Apirilak 19, 21, 26 eta 28 eta maiatzak 3, 5, 10, 12, 17, 19, 24 eta 26, 19.00etatik 21.30etara, Portalean. Izen-ematea: *Apirilaren 14ra* arte, Pegoran.
- **Udalekuak.**
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Udalekuak. Norentzat: 14-17 urte bitartekoentzat. Izen-ematea: 943445980 www.gipuzkoa.net/oporraldi; Portalean, 943708435.

telefono jakingarriak

SOS delak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00, 08.00, 08.50, 09.00 eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 12.30, 13.30, 15.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 07.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13-etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Polonia Etxeberrian 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Berogailu indibiduala, gas naturalarekin. Sartzeko moduan. Garajea hartzeko aukera. Tel. 943-701652 edo 685-784850.

– Elgoibarko Basarte auzoan pisua salgai, garajearekin. 77 m². Eguzkitsua eta egoera onean. Bizitzera sartzeko moduan. Oso aukera ona. Tel. 647-372033.

– Errebal kalean duplexa salgai. 4 logela, egongela, sukalde handia, komun bi, despatxoa eta terraza. Berriztua eta argitsua. Deitu arratsaldez. Tel. 605-772606.

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. 160.000 euro. Tel. 649-091192 edo 636-930962.

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Berriztua. 25.000.000. pta. Tel. 659-687736.

– Pisua salgai Ipuruan, J.A. Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukalde despentsarekin, komuna eta trasteroa. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 661-291898 edo 610-603631.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 646-048823.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 630-451870 edo 943-206719.

1.3. Konpartitzeko

– Eibarko neska arduratsua beste lagun bat behar du etxea konpartitzeko. Tel. 652-716135.

2. Motorra

3.1. Salgai

– Scooter bi (50cc) salgai. Bietako bat piezetarako aproposa. 1.000 euro. Tel. 659-256852.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Polonia Etxeberrian. 22 m². Tel. 943-701652 edo 685-784850.

– Amañan lokala salgai edo alokagai. Leku ezinhobean. Guztiz hutsik. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-200919 edo 675-712886.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

3.2. Alokagai

– Bidebarrietan 33 m²ko lokala alokagai. Bulegorako. Tel. 943-207339 edo 650-782118.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Tel. 650-152866.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna, externa edo orduka. Tel. 666-771151.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 609-217705.

– Emakumea eskaintzen da 16.00etatik 21.00 arte umeak zaindu edo garbiketarako eta gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 630-404538.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Gauez ere bai. Tel. 656-493864.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 676-659261.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Asteburuetan ere. Tel. 669-688755.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka. Tel. 659-213249.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-344377 edo 943-530745.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 638-482478.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak edo tabernak garbitzeko. Tel. 636-302237 edo 943-033805.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da kamarera edo sukaldari moduan eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 657-142376.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Ordu-tegi zabala. Tel. 699-609190.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 697-702158.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 669-966611.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 659-710226.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 696-735112. Carmen Julia.

– Mutila eskaintzen da igeltsero edo sukaldari laguntzaile moduan, banaketak egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377 edo 943-530795.

– Gizezkoa eskaintzen da elektrizista, igeltsero edo sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 638-527915 edo 943-530132.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 637-180723.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Kli-nika tituluduna. Tel. 943-748209

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 629-994385.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 672-224941.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 652-966263.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu, ostalaritza jardun edo garbiketarako egiteko. Tel. 664-024024.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako. Tel. 678-976886. Karen.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi zabala. Tel. 636-383471.

– Neska eskaintzen da kamarera moduan lan egiteko. Tel. 648-622162.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta informea. Tel. 686-053488.

– Neska euskalduna eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 637-180723.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-156040.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-234612.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 619-507664.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 699-345639.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-786976.

4.2. Langile bila

– Kamarera/o behar da Maixa tabernan. Tel. 605-908924.

– Lagun bat behar da ume bi zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 600-625117.

– Estetizista behar da Eibarko ilea-paindegi batean. Esperientzia. Tel. 635-750643.

– Kamarera/o eta sukaldaria behar dira Aste Santurako Arraten. Autoa eta esperientzia. Tel. 677-638184.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Combi hozkailu ia berria salgai. 150 euro, negoziagarriak. Tel. 943-120308.


6.2. Eman

– Hilabeteko artzai-txakur arra oparitzen da. Tel. 686-598460.

6.3. Galdu/Aurkitu


– Aliantza aurkitu da San Andres parrokiako kulunka parkean. Tel. 943-702602.

Hortzordeekin arazoak?



Goiko hortzordeak

- ✓ Janarien zaporea blokeatzen du
- ✓ Plastikoa artifiziala
- ✓ Itsasgarri likatsuak
- ✓ Hozkada ahula
- ✓ Goragaleak
- ✓ Egoera deserosoak



Goiko aldeko inplanteak

- ✓ Ahosabai garbia
- ✓ Plastikorik gabe
- ✓ Itsasgarririk gabe
- ✓ Hozkada indartsua
- ✓ Goragalerik gabe
- ✓ Ustekaberik gabe

Zure hortzordeek jaterako oztopo bihurtu zaizkizu eta zure irribarrea eta itxura lehengoak ez izatea ekarri dizkizute? Orduan, zertarako xahutuko duzu zure dirua adabakietan? Badira soluzio BERRIAK inplanteetarako aurrez baztertutako lagunentzat.

Deituiguzu 902 468 209ra eta korreoz bidaliko dizugubestelako informazio guztia.

Jan eta barre egitea zoragarria izan daiteke berriro!

Ibarbea Zehar., z/g (Rialto Zehar.) EIBAR www.esteticadelasonrisa.com



Andoni Guisasola Ron Dokorea
R.P.S. 1566/5

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu

*...eta kitto! aldizkarian
duzu aukera (943 20 67 76)*

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75